


uztarria

AZPEITIKO HERRI ALDIZKARIA

Udal
sustapeneko
etxeak: zorte
kontua (3-5)



Hilabetekaria • 2003ko uztaila • V. urtea • 42. zenbakia • www.uztarria.com



JOKO UGARIKO AKTOREA

Nagore Aranburuk Donostiara joan behar izan du aukera bila (20-23)

UZTARRIAKO
BAZKIDE EGIN:

943 - 150358

izena + helbidea
+ kontu zenbakia

|21,04 euro|

Bazkideek jasoko dituzte:

- ◆ liburuxka biografikoa
- ◆ mendi gida
- ◆ literatura gehigarria
- ◆ efemerideen liburua

uztarria

zeren zain zaude, dagoeneko 620 bazkide gar



**SUKALDEKO ALTZARIAK
BAINUGELAK
HORMAN SARTUTAKO ARMAIRUAK**

PEREZ ARREGI, 9 Tfnoa. eta Faxa: 943 15 05 10


mugi
kirolak


Ez egon geldirik



Enparan kalea 8, Tel. 943 - 151004

Martxoan udal sustapeneko 75 etxebizitza egingo zirela esan bazen ere, 57 zozketatu ziren ekainaren 19an, 525 herritarren artean

ETXEBIZITZA TOKATU EDO EZ, ZORTE KONTUA



Nerea Uranga

Martxoaren 21ean Azpeitian Etxebizitza Sustatzeko Udal Planaren berri eman zuen Azpeitiko Udalak, "denera Udal Sustapeneko 75 etxebizitza berri egiteko" asmoa azalduz, Azpeitia Lantzen Herri Sustapenerako Baltzuaren bidez. Egitasmoak bi helburu zituela esan zen: "Azpeitiarrei lehenengo etxebizitza erostea erraztea; eta, bide batez, gure herriaren gune historikoa berrindartzea". Era berean, herritarrei izena emateko aukera zabaldu zen, apirilaren 30a arte.

Ekainaren 2an, Udal Sustapeneko etxebizitzak eskuratzeko izena eman zutenei, 525 laguni, zenbaki bat eta gutun bat helarazi zien etxera, Azpeitiko Udalaren izenean, orduan oraindik alkate zen Jose Mari Bastidak. Gutunean hauxe jakinarazten zen: "Azkenean 70 etxebizitza berri izango dira ekainaren 19an (...) zozketatuko direnak". Lehenengo iragarpena baino bost etxebizitza gutxiago. Zergatik? "Legediari kasu eginez, utzi beharreko solar batzuk errespetatuz egin dira planoak, eta bost etxebizitza gutxiago atera dira"; horixe izan zen Azpeitia Lantzeneko teknikariaren erantzuna.

Epe bat ere zabaldu zen, Udal Sustapeneko Etxebizitzen planoak eta salneurriak ikusteko. Ekainaren 9tik 18ra bitartean, goizez eta arratsaldez, Sindikatu Zaharreko bigarren solairuan egon ziren plano eta salneurri guztiak; eta, azalpenak ematen eta zalantzak argitzen, Azpeitia Lantzeneko teknikaria. Eta han kartel batean idatzita zegoenez, ekainaren 19an egingo zen zoz-

JENDE ASKO ZOZKETAN. Azpeitiar asko bildu zen ekainaren 19an Azpeitiko kiroldegian, Udal Sustapeneko etxebizitzen zozketan. Batzuk gustura atera ziren; beste asko, ez.

Idazle gazteen uzta 'Literatuzta' (24)

Legen Beltza: AEBetako disketxe batekin kontratua (25)




Asier Oiarzabal 'Ironman'-era joango da (29)



Hi heu! Pello Segurola (38)

uztarrria


Eliz kalea



● **LAU ETXEBIZITZA.** Lau pisuko etxebizitza egingo da, pisu bakoitzean etxebizitza bakarrekin.

● **BUKATZEAR.** Etxebizitza hauen obra oso aurreratua dago. 87,6 metro karratuko etxeak izango dira. Eta salneurria 26-27,5 milioi pezeta artekoa da.

Goiko kalea



● **LAU ETXEBIZITZA.** Hiru etxebizitza daude aukeran hiruk desberdinak, tartean apartamentua eta duplexa.


● **HASTEKO.** Lehengo etxe zaharra botatzeko dago. Etxebizitzak 26,5 milioi pezeta; apartamentuak hogei milioi pezeta; duplexak 28 milioi pezeta balio dute.

Erdi kalea



● **ZORTZI ETXEBIZITZA.** Lau pisuko etxebizitza egingo da.

● **HASTEKO.** Etxe zaharra botatzeko dago. Lehen pisuan, 25 milioi pezeta; bigarren pisuan, 25,5 milioi pezeta; hirugarren pisuan, 26 milioi pezeta; laugarrenean, 26,5 milioi pezeta.



► ketan 57 etxebizitza zozketatuko ziren. Hasierako iragarpenean baino 18 etxebizitza gutxiago, eta bigarren iragarpenean baino 13 gutxiago. Zérgatik? “Enparan kalean egingo diren zenbait etxebizitza egiteko arauak aldatu egin behar dira aurretik; alegia, kale horretan azkena bota zen etxearen lekuan. Izan ere, hor ibaiaren aldetik pasealekuari bukaera eman behar zaio Perez Arregi plazaraino. Baina, oraingo zozketan ez badira sartu, ziurtasunez jokatzeko agatik izan da. Gero, arauak aldatu ondoren, ikusi egin beharko guk uste bezainbeste etxebizitza egiteko aukera dagoen ere. Denaden, orain izena emana dutenen artean zozketatuko dira hor joango diren etxebizitzak ere”; horixe izan zen Azpeitia Lantzenen erantzuna.

ZOKKETA EGUNA. Ekainak 19, 18:00ak. Kiroldegian. Ingurua autoz josita, jendea eskaileretan gora kiroldegira. Batek hala zioen, “aspaldian horrenbeste jende batera

Etxeak erosteko baldintzak

● **NORBANAKOARENAK.** Udalak jarritako hiru baldintzak: Azpeitian erroldatuta egotea azken bost urteotan; jabetzan etxebizitzarik ez izatea; gehienez 45 mila euro eta gutxienez bederatzi mila euro irabaztea urtean. (Babes ofizialeko eta sozialeko etxebizitzaren eskaria egiteko gehienezko irabazia urtean 33 mila euro da).


● **ORDAINKETA.** Behin etxea izendatutakoan, %10a ordaindu beharko du erosleak; egitura egindakoa, beste %10a; azulejoa jarritakoan %20a; eta eskriturak egindakoa gainontzekoa, %60a. Behin izendatutakoan atzera eginez gero, ordaindutako diruaren %10a galduko da.

Babes ofizialeko eta sozialeko etxebizitzaren ordainketa modua desberdina izan ohi da. Kasu honetan ordainketa atzeratu

egiten da, etxebizitzan bizitzen jarri arte. Behin bizitzen jarritakoan hasi behar izaten da ordaintzen.

● **JABETZA.** Hamar urtean ezingo da etxebizitza saldu, eta saltzekotan Azpeitia Lantzen saldu beharko zaio, KPI gehituta. Hamar urte pasa ostean, eroslearen jabetzan geldituko da. Etxebideren esanetan, sustapen pribatuz egiten diren babes ofizialeko etxebizitzak jabetza osoan ematen dira, baita udal sustapen batzuetan ere. Aldiz, Eusko Jauriaritzak egiten dituen babes ofizialeko eta sozialeko etxebizitzak 75 urterako ematen dira.

● **BIZITZEN JARRI BEHAR.** Behin etxebizitza bukatu eta giltzak hartzen direnean, eta sei hilabeteko epean, bertan bizitzen jarri beharko da.



Enparan kalea



● **16 ETXEBIZITZA.** Bi portal izango dira. Beheko solairuan ere etxebizitzak egingo dira.

● **HASITA.** Etxeak botata. 27 eta 29,5 milioi pezeta arteko salneurria dute. Garaieja aparte, aukeran.

zezen-plaza ondoan



● **25 ETXEBIZITZA.** Bi portal izango dira. Beheko solairuan ere etxebizitzak egingo dira atzekaldean.

● **HASITA.** Etxeak botata. Hogei eta 28 milioi pezeta arteko salneurria. Garaieja aparte, aukeran.

etorri ote da hona". Kirol partiduren bat ikustera agian bai, zozketa batetara seguru ezetz.

Harmailetan jendea eserita, goikaldean ia denak. Megafoniarekin arazoak, goitik ez zen ondo ulertzen, jendea beheragoko harmailetara jaitxi zen. Jendearen artean zahar eta gazte. Gehiengo gaztea, batzuk bakarrik, besteak koadrilan, besteren bat gurasoetako batekin... Saskibaloiko kantxan, mahaiaren gainean izen-abizen eta zenbaki guztiak, mahaiaren bueltan eserita, harmailetara begira, eskuinetik ezkerre-ra, idazkaria, notarioa, Iñaki Zabaleta Azpeitia Lantzeneko teknikaria eta Jabier Beobide (lehen Azpeitiko zinegotzia (EA) zena eta Azpeitia Lantzeneko kontseiluko ordezkaria).

Hasieran, banan bana izen abizen eta zenbaki guztiak irakurri ziren (525), banaka idazkariak gutunazal batean sartu eta denak kutxa baten barrura. Nahastu eta zozketari ekin zitzaion. Kiroldegian isiltasuna

nagusitu zen. Lehen 57 zenbakiak izen-abizenekin esan ziren, ondorengoak zenbakia bakarrik. Lehen ateratako 57 zenbakien jabeek lekua, portala eta etxebizitzaren ezaugarrien (bi logela, hiru logela) arabera aukeratzeko lehentasuna dute. Hauek uko eginez gero, zerrendan ondoren denak du lehentasuna.

Lehen 57 zenbakiak jakin ondoren jende gehienak kanporako bidea hartu zuen. Iker Juaristiren zenbakia 33. tokatu zen zozketan, gustora zegoen. "Gustora nago etxebizitza tokatu zaidalako, baina orain ikusi egin behar non dagokidan. Etxe hauen inguruan kalean entzun dudanagatik *pufo* bat dira, garestiak direlako. Ez zait justua iruditzen 25 milioi ordaintzea Marcial Ucinekoak irensteko. Niretzat etxerik onenak Enparan kalekoak dira. Oraindik ez dakit etxea hartuko dudan edo ez, ikusi egin behar tokia eta salneurria".

Maidar Zurdoren zenbakia ere 57 zenbakien artean tokatu zen, 32. hain zuzen ere.

Pozik zegoen eta ziurrenik etxebizitza hartu egingo du. "Oso gustora nago etxebizitza tokatu zaidalako eta ziurrenik hartu egingo dut. Baina, etxebizitza bakoitzak balio duena ikusita ez dirudite udal babesekoak".

Batzuk gustora sustapeneko etxebizitza egokitu zaielako. Beste batzuk etxebizitza hauetakoren bat hartuko zutelakoan, baina zorte txarragoa izan eta ez zaie egokitu. "Ez zait etxerik tokatu. Baina, tokatu bazitzaidan hartu egingo nukeen", zioen Mari Karmen Kintanak. "Ez dut zortetik izan, ez zait eta etxerik tokatu", zioen Karmen Sernak, "dena den, Udal Sustapeneko etxebizitzak nahiko garestiak direla iruditzen zait. Eta aukera izango banu aztertu egingo nukeen pisua hartu edo ez. Baina, orain ez dut arazo hori".

Etxebizitza tokatu zaienek, hartu edo ez hartu, lekua eta abar aztertzeko izango dituzte. Azpeitia Lantzenek, berriz, etxebizitza horiek hartzeko aukera dutenen baldintzak aztertuko dituzte. ●

amuko zubitik Aitor Aranguren

17+4

Ekainak 14, larunbata, 11:45. Giro beroa plazan eta zirkoa hasteko dena prest: ertzainak gala-uniformearekin, beltzez, aurrean *ilegalizatutako* Habea protestan eta oraindik ezin denez udaletxera sartu, beste alderdieta-kideak ez dira ausartzen plazara etortzen.

Bitartean udaletxean, Udaltzako aretoan aurrez aurre 16+4 zinegotzi (PPkoa ez da etorri) 12:00etan ekitaldia hasteko zain. Eszenatikian tentsio nabari da, aurpegi serioak. Gehienak urduri bata besteari begira eta inork hitzik ez. Batzuk dotore azaldu dira ezkontza baterako pare, pintatuta eta ileapaindegitik pasatuta, eta beste batzuk, berriz, bizarrak moztu gabe. Batek "gora Euskadi askatuta" dio, lurraldea markatzen, lehoia dirudi boterea azaldu nahian edo. Beste batek geroxeago "gora Euskal Herria askatuta" botako du. Inondik ere nazio ikuspuntu zeharo ezberdina, ezta? Bizi dugun eskizofrenia politikoa-ren adierazle.

Ikuskizuna hastera doa. Bazter batean tente zirkoko zuzendaria, lasai, barrea dariola. Gozaten ari ote? Aretora jendea sartzen hasi da, isilik, kalean iskanbila. Geroxeago Habeako kideak haserre eta oihuka sartzen dira, beste herritarrei emaniko tratu berbera eskatzen. Eta batzuen eta besteen artean sua pizten da, eta sekulako zarata. Denetik ikusi zen, zentzugarri eztabaida amaigabeak, irainak, mehatxuak eta onar ezin daitezkeen probokazioak ere argazki-kamera bat tarteko; TVE 1erako irudi ezin hobek. Ez da posible izan PNV-EA eta PSE-EEeko kargu-hartzeak entzutea. Ondoren Habeako buruak hitza hartu eta errespetuz (edo beldurrez?) denok isilik.. Jarraian sinbolikoki lau aulki plazara ateratzen dira.

Datozen lau urtetan Azpeitiko alderdi politikoen arteko bizikidetzaren heriotza-zauri larriekin gelditu da. Bitartean Espainian gure espektakuluaz gozaten. Ez dugu besterik merezi. Eta Saninaziyuek datoz.

azketako ude Ainhoa OdriozolaOINEZKOEN, ETXEKOANDREEN
ETA LANGILEEN EGUNA

Bada zerbezaren iragarki bat zeinek berdez pentsatzea gomendatzen digun; Azpeititik bazoaz ordea, gauza aldatu egiten da, *ez pentsau koloretan, ez berde ta ez gorri*, formetan baizik. Berehala ulertuko didazu irakurle: oraintxe dauzkagun errotonda mordoarekin, *pentsau borobillien*, pentsau borobilean gidari koittau hori, bestela bazterra joko duzu eta!

Ez al da ba hola? Damason *bueeelta*, hartzubiaren *bueeelta*, Loiola-biden *bueeelta*, eta laster Sanjuandegirako ere buelta. Nire 4 urteko hila-ba konturatuta dago; bere hitzetan, txupa-txusa bezala da: lehenengo makila luze luzea, gero buelta dena borobilean eta gero berriz ere makilatik behera. Horrela azaltzen du Jose de Artetxetik ikastola berrira egiten dugun bidea, Loiola-bideko errotondatik pasatuz.

Ba hori: borobilean pentsatu, zirkunferentzia ondo trazatu, bestela errotonda barruan bukatu duzu eta. Eta nork nahi du horrelakorik,

erdi-erdian jartzen dituzten lora politekin, inork usaitu, ikutu, edo zapaldu ezin dituen gune berde zoragarri horiekin. Aizu! ez da ideia txarra, bero hauekin eta piszinako betekada ikusita, tortilla hartu eta rotunda erdian mantela atera. Aspersore eta guzti, freskatzeko primeran! Hori ere gero eta zailago, ordea, eskulturak jartzen badituzte erdian. Landetako errotondan, langileei eskeinia. Barregura ederra ematen du astelehen goizetan hortik pasatzea! Lehen gogo gutxi, eta gogoratu egin behar nora goazen!

Proposamen bat dut Sanjuandegiko errotondaren erdirako: ez emakumearen irudirik, ez zezenik: automobiliari monumentua. Berdin dit zein materialetan, baina ondo goian eta ondo disdiratsu. Bitartean, oinezkoen estatua jar dezatela lurrazpiko pasabidean; edo bestela, baikoitzek ospa dezala etxean, egunero da-eta oinezkoen, etxeandreen eta langileen egune.

puntie ateaiez

Enekoitz Esnaola

AMNESIA

Amnistia', grekerazko 'amnesia' hitzetik dator. Oroimenaren galera da amnesia.

Horma batean 'amistia' pintada egin duenari hori gertatuko zitzaien: ahaztu nola idatzi. Besterik gabe.

Ezker abertzaleak ez du amnesiarik presoekin. Amnistia du helburu. Baina aspaldi utzi zion hori soilik eskatzeari, eta euskal presoak Euskal Herritarzaren borrokari heldu zion (zein da aldarrikapen politikoetan ezker abertzalea bezain pragmatikoa eta malgua?).

Haren borrokari esker, gizarateak bere egin du *Euskal presoak Euskal Herrira* leloa. Baina orain iritsi da Realaren euforia giroa, begiratu herriko balkoietara, eta Realaren banderek goleadaz irabazi diete presoenei. Gizarateak presoen borroka bere egin ez duen seinale. Alde egotetik alde egitera tartea dago, tarte horretan amildegia, eta amildegia behan amnesia, esku zabalik.

bota bertsue

Urko Egaña

'LITERATUZTA'

Literatura baino ez da buruotan ta beti egonarren kaleratzekotan egiteko beldurra izan da askotan zer gozatu izango dugu uztail honetan hitza eta herria uztartu asmotan.

Herri literatura herritarra denez ta egunerokoan darabilkigunez aintzakotaz hartuko dugu egun batez ta zu ere beraren osagai zarenez ekitaldietara animatu zaitez.

SAN DIOS !!!
NON IBILI HAIZ MOTEL?



IZARRAITZ. Foru Al-
dundiak ingurune me-
galitikoak babestea
erabaki berri du. Beste
leku eta ingurune batzuen arte-
an Izarraitz mendikatea ere ba-
bestuta geldituko da erabaki
honen ondoren.



HERRIAN ABIADAN.
Batzuk herriaren erdi-
erdian abiada bizian
ibiltzen dira autoare-
kin, zenbait bidegurutzetan eta
gelditu gabe pasatuz. Herri ba-
rruan ardura gehiagoz gidatzea
ez legoke gaizki.



ALDE ZAHARRA. Alde
zaharrea dauden mer-
katari batzuk, Damaso
Azkue auzora pasatze-
ko asmotan omen dira. Lehen
nahikohildabada go alde zaha-
rra eta dendak badoaz, zer ger-
tatuko da gero?

uztarria.com-eko eztabaidie

GAIA: Uztarria Kultur Koordinadoraren web guneko 'ezta-
baidan' atalean euskarazko prentsa hain gutxi irakurtze-
aren inguruan sesioan dabilta kide batzuk. Hona hemen
gutun horietako sorta bat:

'Berria' anitzagoa

Ez omen da erraza ohiturak aldatzea, gehiago saiatu beharko da.

Egunkari berriak, zabala beharko luke, lehen baino anitzagoa (lehen ere anitzene-
takoa zen); ez *Gara*, *El Diario Vasco* edo
Deia bezala alderdikoia.

Ohitura

Gutxi irakurtzen da

Azpeitian irakurtzeko ohitura handirik ez
dago; eta euskaraz gutxiago irakurtzen da
gaztekeraz baino.

Jende gehienak *El Diario Vasco* ohitura-
gatik erosten du eta irakurleen erdiak
baino gehiagok hiru atalei bakarrik begira-
tzen die egunkari osoan: Azpeitiko orriari,
eskeleki eta Realari eskaintzen zaion tarte
zabalari.

Altza porru

Euskalkian

Zergatik irakurtzen den hain gutxi euska-
razko prentsa? Herri bakoitzeko euskal-
kian ez dagoelako idatzita eta batueraz
kosta egiten zaio irakurtzea jende askori.

Eta zergatik irakurtzen den hainbeste
DV? Telebistaren gida oso ona duelako
eta Azpeitiko kartagatik. Euskarazko egun-
kari bat jendeak irakurtzeko jarri telebista-
ko programazio on bat, Azpeitiko orri on
bat eta batez ere txutxumutxuen atal han-
dia. Utzi denok horrelako intelektual eta
artikulu sakon-zaleen irakurle itxura egite-
ari. Gipuzkoan *Hola* aldizkaria Espainiako
probintzietan baino askoz gehiago saltzen
baita, eta askogatik gainera.

Flash

Flashi erantzunez

Flash-ek idatzi duen bezala, behintzat, ez
dut uste gehiago irakurriko dugunik euska-

raz. Zein da zure herriko *euskalkia*, edo
nire herrikoa? Batueraz irakurtzea kosta-
tzen zaion jende guztiak erraztasuna al
dauka, bada, gaztekeraz irakurtzeko? Ez
dut uste!

Gehiago dela uste dut olatuarekin ibil-
tzea, bakoitzak kontzienteki nahi dugun
lekura igeri egitea baino. Edo horrelako
zerbait!

Itziar

Lau ideia

Bakoitzak bere aldetik ez duelako gehiegi
jartzen alde batetik, eta bestaldetik, bada,
euskara irakurketa mundu honetan, nola-
bait esateko, berriegia delako.

Uste dut, hala ere, euskaraz gero eta
gehiago irakurtzen hasiko dela jendea,
ikastetxeetan euskaraz idatzi eta irakur-
tzen gure gazteak asko ikasten ari baiti-
ra.

Niretzako euskaraz ez da irakurtzen
orain arte, ez delako ohiturarik egon. Ber-
din gertatzen da gaur egun pelikulekin ere;
zeinek ikusiko du bada *Arkumeen*
Isiltasuna filma? Izena bera ere oso arra-
roa egiten da eta. Jendearentzako artifizia-
legia gertatzen da euskaraz zenbait gauza
egitea.

Van Halen

akulue

Leire Ostolaza

ZORIONAK,
MIKEL

Gehiengan txoko hau kritikarako erabili badut ere, izenari arrazoia emanaz, akulua onerako ere izan daiteke, aurrera bultzatzeko balio baitu.

11 zenbakia bizkarrean duela gazte azpeitiar baten abileziaz gozatu dira gure begiak, eta Espainiako Liga bigarren postuan amaiturik, irabazteko bi punturen faltan, garaia heldu dela uste dutmerituen zenbaketa egin eta bakoitzari dagokiona emateko. Zelai erdiko lan ixila eta gogorra egin du Mikelek; baloiak aurrera dotoreziaz bidaliz, galdutakoei etsi gabe jarraituz, berreskuratuz; burua hotz, bihotza bero umiltasunaren bidetik beti, taldeko jokalarri garrantzitsuenetako bat bihurtu da.

Kanpoko izarren dizdirak itxutzen du futbola. Baina taldea talde izango bada zeresan handia dute Mikel, Xabi, Igor, Aitor eta hauen moduko bertako jokalarri gazteek. Zer esanik ez jarraitzaileenganako gertutasunari dagokionez. Ez baita gauza bera izar galaktiko hauetako bat telebistaz ikustea jainkoa bailitzan, edo normaltasun osoz kalean gurutzatzea.

Jendeak erantzun bikaina eman du eta aspaldiko partez igande arratsaldeak zirrargarri gertatu dira, futbolaz eta ematen zaion garrantzi neurri kanpokoaz nazkatutik geundenontzat ere. Zorionak, beraz, Mikel, eta aupa Real!

galdeiez

Ba al duzu azokara joateko ohiturarik? Garrantzitsua al da produktuen jatorria?

**kartak**

Soreasu
ixildu egin
digute

Astean hirutan bere atea ireki eta mila istorio eder, ez hain eder, eta nahiko txarrak ere pantailaratzen zizkigun aretoa, ilunpetan dago. Bere jarraituko gorriak tolestuta daude; eta, itxura denez, halaxe jarraituko dute denboraldi baterako. (Mihai gaiztoak betirako itxi dutela ere hasi dira dagoeneko esaka).

Gutxi omen ginen bezeroak. Ez ginen asko, ez. Igande gaueko azken txandakoak behintzat, kuadrilatxoak: han-hermenka buru bat edo beste; haruntzaxeago, hiru edo lau taldetxoak. Bezero finak. Baldintzak ez zirela egokienak jende-andanak erakartzeko?, bale; Donostiako zine areto *lustrosoak* probatu eta gero *tertzermundista* zela?, enfin; Azkoitikoak irabazi egiten ziola puntu askorengatik?... (derradan bidebatez, *handikaldekoek*, zinema barkarik ez, espektakulo ugari eta onak antolatu dizkigutela urtean zehar —segi horrela!—. Baina azpeitiarren zinema aretoa izan da beti Soreasu, —Zelaitxorekin ez dakigu zer gertatuko den—, eta hala

jarrai dezan nahi dugu. Udalak kanpainak egin ditu, herrian bertan kontsumitu behar dela-eta, herria bizirik egongo bada azpeitiarrak Azpeitiari lagundu behar diola aldarrikatuz. Ederra bidea! Urola trenaren kasuan ere, han ere jende gutxi ibiltzen omen ginela-eta, pasa zuten hura ere historia-ra. Nora joan behar dugu? Nora bidali nahi gaituzte kontsumitzera? Zer espero behar dugu etorkizunean? Entzun behar duenak, entzun dezala! Soreasu antzokian bagenituen arazo txiki batzuk zinemako pertsonaiek esaten zuten ongi aditzeko. Ez zen oso ongi entzuten, ez, baina orain ez da ezertxo ere entzuten. Soreasu ixilik dago. Soreasu ixildu egin digute.

Maite Garmendia

Etxean jaso
ditugun liburu
potoloak

Oraindik ez dira saninazioak iritsi, baina etxe guztietan jaso dugu halako liburu potolo bat. Aurten hirugarrena bada. *Azpeitia berria* izenarekin dator. Herrian azken 24 urteetan zer egin den azaltzen du, baina ez

Arantxa Azpillaga

(langilea)



“Bai, badut ohitura azokara etortzeko.

Ez dut ohiturarik bertako langileei produktuen jatorria galdetzeko. Ez diot hainbesteko garrantzia ematen produktuak nongoak diren jakiteari; azokakoak badira, nahikoa”.

Eustaki Orbegozo

(jubilatua)

“Normalean astero etortzen naiz azokara. Nire iritziz Euskal Herriko produktuak hobekoak di-

al dugu hori kalean ikusten? Guk ez dugu eskatu gure zergak horretan gastatzeko. Ez al da gehiegikeria hainbeste diru horretan gastatzea? Informazioa beharrezkoa da herriarentzat, ados, baina... Oraingoan, alkatez aldatzen delako, bestean aurrekontuaren berri emateko... Dirutza handiegia gastatzen da horrelakoetan. Diru hori beste zerbaitetan erabiltzeko ezin ote da gorde?

Maialen

Noiz arte horrela?

Udalak etxebizitza arloan proiektu bat darama aurrera. Udalak sustatutako 75 etxebizitza ziren zozketatzekoak, teorian. Azpeitiar ugarik eman genuen izena zozketan parte hartzeko, 500dik gorak hain zuzen.

Ikusirik udalak etxebizitza arloan eraman duen politika, aukera paregabea zirudien etxebizitza duin eta eskuragarri bat lortzeko. Ilusio eta itxaropen guztia jarri genuen proiektu honetan, beste hainbatek bezala. Inozoak gu! Hartu dugu astindu ederra! Batetik, gure ezustea, 70 edo 75 izan beharrean soilik 57 direla zozketatzekoak jakitean. Norentzat ote dira falta direnak? (Enparan kalean, hasieran esan zen kopuruaren erdia

UZTARRIAREN WEB ORRIKO INKESTA

1. GALDERA: Berrria egunkariaren alde 59.000 euro biltzeko gauza izango garela uste al duzu?

- Bai: %60
- Ez: %40

Ainhoa Alberdi

(langilea)



“Lanetik jai dudanean bakarrik etortzen naiz orain azokara. Niretzako behintzat azokatik erositako produktuaren jatorriak ez du garrantziarik, produktua ona dagoen bitartean jan egiten da”.

produktuaren jatorriak ez du garrantziarik, produktua ona dagoen bitartean jan egiten da”.

Karmen Eizmendi

(jubilatua)

“Azokara joaten naiz, baina ez ohitura daukadalako. Ez dago jakiterik nongo produktua den

hobea. Edozein lekutan gertatu litekeelako lekari baba ateratzea, eta horiek ere salgai egon litezke azokan, bere jatorria edozein izanda ere”.

Mikel Bastida

(langilea)



“Lanetik jai daukandanean bakarrik etortzen naiz azokara. Azokatik erosten ditudan produktuen jatorriari ez diot garrantzia handiegirik ematen, ez baitzait garrantzitsua iruditzen produktuak nongoak diren jakitea”.

ditudan produktuen jatorriari ez diot garrantzia handiegirik ematen, ez baitzait garrantzitsua iruditzen produktuak nongoak diren jakitea”.

ra, baina azokara gero eta euskal produktu gutxiago ekartzen da. Letxuak eta azokan bertan saltzen dituzten produktuak nongoak diren jakitea garrantzitsua dela iruditzen zait”.

Maria Jesus Etxeberria


(etxeko andrea)



“Bai, normalean astero etortzen naiz azokara. Normalean beti postu berdinetan erosteko ohitura dut, eta, nik erosten dudana postuetan behintzat Euskal herriko produktuak egoten dira salgai”.

postuetan behintzat Euskal herriko produktuak egoten dira salgai”.

bada kejie!



Kamioiak herri erditik

Gidatzeko nahiko aldrebesa da herria, batez ere erdigunea. Askotan Marcial Ucin enpresako keei begira egoten gara. Ez da hori ia herriaren erdian dugun industrigune bakarra. Madalena aldeko hormigonera ere ez da gutxiagorako, eta harat-honat ibiltzen diren kamioiak ere ez. Madalena eta Damaso Az-kuen eguneroko pasabidea dute harako kamioiek.

A. Agirre

ran esan zen kopuruaren erdia ez da zozketatuko). Bestetik, udalak babestutako etxebizitzaren prezioa salatu nahi genuke: Enparanen etxebizitza merkeenak 27 milioi pezeta balio ditu, eta besteek antzera. Ezin da azpeitiarren beharrezanekin horrela jokatu!

Azpeitia Lantzen SAren helburuetako bat azpeitiarroi etxebizitza eskuratzeko orduan erraztasunak ematea da. Zer erraztasun? Nork irten du irabazten? Herritarrok? Zer egin go da zozketatuko ez diren etxeekin? Noiz arte horrela?

Igor Aramendi,

Joseba Galarraga eta

Mikel Ruiz de Argandoña

Etxebizitza eskubidea guztiontzat

Ekainak 19, osteguna. Azpeitian udalak sustaturik etxebizitzaren zozketa egiteko eguna. Baina iruzurra egiten ari dira, iruzurra azpeitiarroi eta hori esateko adibideak baditugu:

- Udalak (PNV-EAren esku-tik) proiektu zoragarri bat aurkezten digu non herrian daukagun arazo larri baten aurrean (etxebizitzarena) udalak susta-

tutako 70 bat etxebizitza aurkezten dituen. Horiek zer dira, egin beharra dauden eta urte luzeetan egin ez diren etxebizitza sozial eta babes ofizialekoen ordezkokoak?

- Azpeitian hamar urte baino gehiago dira legez derrigorrez egin behar ziren babeseko etxebizitzarik ez dela egin. Eta horrela izan da udala gestionatu duten PNV-EA ko ordezkariak hala nahi izan dutelako;

etxebizitzaren kontura izugarriko negozioa egiten dutenak babesten egon dira.

- Ekainak 19an zozketatu ziren etxebizitzek 25 eta 30 milioi pezeta artean balio dute gehienek. Bai, pezetatan diogu, ondo ulertzeko denok. Zein herritarren beharretara egokitzen dira prezio horiek?

- Etxebizitza hauen zozketan sartu ahal izateko baldintzetako bat 9.015,18 euro eta

45.075,19 euro arteko irabaziak izatea da urtean. Errekurtso gutxien duten pertsonak ezingo dute aukerarik izan, eta urtean ia zortzi milioi irabazen dituenak bai. Nori zuzenduak daude etxebizitza horiek?

- Etxebizitza horietatik ez dago batere alokairuan. Jakina da, jende askok etxebizitza batean sartzeko aukera bakarra alokairuan sartzea dela. Zergatik ez dira jarri alokairuan hainbat etxebizitza?

- 57 etxebizitza daude zozketarako, eta 525 pertsonak eman dute izena. Esan nahi du eskerra handia dagoela, eta lagun gutxiri emango zaio irtenbidea. Zer egin behar dute besteek?

Hauek eta beste hainbat adibide garbi erakusten digute egin nahi dituzten *partxeo* hauek ez dutela arazorik konpontzen. Denak berdin jarraitu dezan herrian egindako presioari ematen dioten irtenbide faltsua da. Guk, Habea-tik, arazoren irtenbiderako proposamenak egiten jarraituko dugu, eta horiek aurrera ateratzeko lan egiten, eta iruzurra dagoenean iruzurra salatzen. Etxebizitza eskubidea da, eta ezin du merkatuaren logikan jarraitu. Azpeitian 180 gradu bira eman beharra dago etxebizitzaren politikan. Denon indar eta kemenez lortuko dugu.

Uztarrria aldizkarian ateratako marrazki batzuk



Andoni Salegi

marrazkilaria

Uztarrria herri aldizkariarekin batera jaio zen Otsobeltz. Andoni Salegi izan da sortzailea, eta azkenean auto batek harrapatu du

“Pertsonaiari ‘kariñoa’ hartu diot”

Josu Azpillaga

Uztarrria aldizkariarekin batera jaio zen Otsobeltz, Andoni Salegi marrazkilariaaren buruan jaio ere. Berrogeita bat hiletan fin izan dugu, baina auto batek harrapatu du. Kitto. Aita artistikoarekin egin dugu elkarrizketa.

• Zer egiten duzu orain, Andoni?

Arte Ederrak ikasi nituen Bilbon, eta azken urtean Atenasen, Grezian aritu nintzen. Handik bidaltzen nituen Otsobeltzen binetak, beste *cybercafe* horietako batetik.

Aurten doktoradutza egiten hasi naiz. Altzarien alde sortzailea aztertu nahi dut. Herrian egurrak indar handia du; nik ere jaso dut heziketa horretatik zerbait, eta Arte Ederrak ere ikasi ditut. Orain biak, artea eta industria, uztartu nahiko nitzuke.

• Hitz egin dezagun Otsobeltzi buruz.

Enkargua jaso nuen Uztarriatik, hilean

behin bineta bat egitekoa. Buruari bueltak eman ondoren, pertsonaia bat sortu eta hilerro harekin aritzea erabaki nuen.

Azpeitiko armarrak bi otso ditu. Beti pentsatu dut, domestikaturako edo nolabait *zibilizatutako* otso horiek kontraesankorrak direla. Nik, batetik, otsoaren betiko paper ez-egokitu hori berreskuratu nahi izan dut. Bestetik, beltza kolore berezia da. Otsoaren eta beltzaren konnotazio horiek erabili nahi izan ditut Azpeitia zirikatzeko.

• Zirikatzea aipatu duzu. Hori al da bineta zuretzat? Nola ulertzen duzu?

Bai. Binetak jendearen parte-hartzea bilatzen du. Nik bineta batean gauzak adierazi nahi ditut, baina ez ikuspegi jakin eta landutako bat emanez. Dena ez dut egin da eman nahi: ikuspegiak airean utzi nahi nitzuke. Zerbait irekia dira binetak niretzat, eta halaxe egin nahi izan ditut. Batzutan ez nuen asmatuko, eta igotal batzutan bai.

• Otsobeltz hil duzu. Zergatik?

Auto batek harrapatu du. Kalea pasatzen hasi... eta akabo. Ez zen egokitu. Buakaera tragiko bat eman nahi nion.

Uste dut denak behar duela bukaera bat. Gainera, beste jende bat ere ikusi nahi dut herri aldizkarian. Ez dut betikotu nahi. Anarkismoarekin ere badu zerikusia honenek, ez instituzionalizatzeak.

• Egin dituzun bineta guztiak erreparatu ditut. Nik uste, Otsobeltzek zure kezkek, zure obsesioak islatzen dituela. Uste du hauetako batzuk atzeman ditudala. Bat: ekologia.

Bai. Niretzat lehenengo gauza da. Gu bizi gara etxe batean, arnasa ematen diguna, jaten ematen diguna. Eta zaindu egin behar dugu, errespetatu. Derrigorra dugu.

• Eta ekologiaren barruan, bereziki, autoa erabiltzen duzu sarritan.

Sinbolo indartsu bat delako. Autoa da pre-



sa, pertsonalitatea, inbertsioa... Aauza asko esan nahi du. Noraeza bera ere bai.

● **Beste gai errekorrente bat: festak.**

Azpeitian festa asko ere badugu-eta. Festak askotan itsutu egiten gaituzte, kezkek ahazteko erabiltzen ditugu. Baina kezkek

hor irauten dute, ez dira joaten. Eta egunen batean lehertu egiten dira. Gauzak ospatu zalea naiz ni ere, baina ospakizun horiei erabilpen okerrik eman gabe.

● **Erljioa, fedea.**

Heziketaz kristaua naiz ni ere. Ni *kristo* ba-

ten laguna izan ninteke; baina ez Elizarena. Jesus bera izango zen anarkistetan lehenengoetakoa, eta Elizak estamentalizatu egin du. Ni ez noa erlijioaren esentziaren kontra, hustu egin ditugun sinbolo guztien kontra baizik.

● **Politika. Hauteskundeak.**

Politikan aldaketa sakona behar dugu, bestela gaizki goaz. Hauteskondeetan pertsoneri ematen diegu botoa. Nik ekin-tzen gaineko bozketak, erreferendumak, egokiago ikusten ditut, adibidez.

● **Neskak. Maitasuna.**

Maitasuna parodiatu nahi izan dut. Uste dut, ideia hau ere idealizatuta daukagula. Noski, niretzat ere oso inportantea da, denontzat bezala. Baina idealizazio horren kontra, justu kontrako hizkuntza erabiltzea gustatzen zait, hizkuntza brutoa, bastoa, zuzena.

● **Lana eta oporrak.**

Betiko kontraesana. Lana ondo bizitzeko egiten dugu, baina ondo bizitze hori oporetara mugatzen zaigu.

● **Eta segurunez, beste kezka bat ahaztuko nuen. Ez?**

Ez dakit. Konturatuko zinen, Otsobeltz-en kezka edo obsesioak mundu guztiak dituenak direla, gutxi gorabehera. Ez besterik.

● **Beno, eta orain, Otsobeltz autoak harripatu eta gero, zer?**

Badut pertsonaia horrekin zerbait egiteko gogoia. *Kariñoa* hartu diot. Estetikoki gustatzen zait, erakargarria egiten zait, marrazteko oso agradablea. Otsoaren konnotazio hori gustuko dut. Ez dakit zer irtengo den, baina neuk lantzen jarraituko dudala badakit. Egindako bineta guztiek lagundu didate niri gauzak zehazten. Batzuk hitzak eta letrak erabiltzen dituzte, baina niri txiki-txikitatik hobeto sartu zaizkit marrazkiak, komikiak-eta. Nik lantzen jarraituko dut, hori seguru. ●

LAU HILABETEKO KRONIKA

‘Euskaldunon Egunkaria’ itxi zuten eta ‘Berria’ sortu da. Lau hilabete pasatu dira itxieratik sorrerara. Ez nolana hiko lau hilabete. Honatx garai horretako kronika

Enekoitz Esnaola

Hemen zeozer pasatzen dek”. Horixe aipatzen zen otsailaren 19an Azpeitian. Izan ere, herrian ez zen oso ohikoa ezezagun batzuen presentzia handia. Gasolindegia txikian, Orkatx inguruan, plazan... zebiltzan ezezagun haiek. Eta Zaharretan ere bai. Hurrengo egunean aurkitu zuen jendeak esplikazioa: Martxelo Otamendi *Egunkaria*-ko zuzendariak hitzaldia zeukan otsailaren 19 hartan Zaharretan, Baite Euskara Elkar- teak antolatuta, eta hura zaintzera etorriak ziren gurera ezezagun haiek. Gero atxilotzeko. Esan daiteke, beraz, nolabait Azpeitian ere hasi zela operazio polizial eta juridiko hura. Lau hilabetera atera da euskarazko egunkari nazional berri estandarra —*Berria*—. Lau hilabete bizi izan dira. Lau hilabete historiko. Eta egoera bereziak eta pasadizoak, hortaz, batzuk bai. Baina, batez ere, hasierakoak geratu dira iltzatuta horibizitza dutenen artean.

Otsailaren 20ko goizeko seirak. Gau hartan piztuta zegoen telefono mugikorrera deia Tolosaldeko batek. Martxeloren etxera sartu zela Guardia Zibila. Eta *Egunkaria* itxita zegoela. Ordubetera, Andoainen, AEKren egoitzan, dozena bat lagun zeuden bilduta. Zer egin? Nola hasi antolatzen? Nola hasi komunikatzen? Egoera beltza zen—hamar lagun atxilotuta eta *Egunkaria* itxita—, baina jendea ez zegoen nerbioak jota AEKren egoitzan, ez zegoen etsita. Lasai eseri, makinako kafesne triste bat hartu—zer ederki sartu zen, ordea...—, eta aurrera. “Goazen Tolosara. Bihar ere egunkaria atera behar dugu, eta han badago zeoze

ateratzeko baliabiderik: *Tolosaldean Egunkaria* egunkariarenak —*Egunero*-ren enpresako bazkidea zen *Egunkaria*—. Eta kanpaina hasteko leloa? Batek segituan: “Ba, kantukoa: *Egunkaria aurrera*”. Primerakoa zen leloa. Izan ere, bada garaia Euskal Herrian ‘gora’-tik ‘aurrera’-ra pasatzeko; ‘aurrera’ ez baita estatikoa, eta hemen, mugitu beharra dago. Lehengoan, *Berria*-ren 1. zenbakian Iñaki Uri, *Egunkaria* kontseilari ordezkariak kartzelatik idatzi bezala, “aurrera eta batera”.

TENTSIOA. Tentsio eta emozio handiko uneak izan ziren Tolosako lehen egun hartakoak. *Tolosaldean Egunkaria*-ko lan taldea *Galtzaundi* eskualdeko aldizkariaren loka- lera joan zen. Hala, *Tolosaldean Egunkaria*-k *Galtzaundi*-ren izena hartu zuen, eta *Egunkaria*-k *Egunero*-rena. Hori, segituan egin zen. Baina eskualdeko batzuei azaldu beharra zegoen aldaketa hori; hau da, *Tolosaldean Egunkaria*-n —orain *Tolosaldeko Hitza* izena du— azkeneko orrialdean zorion agurrak daude eta jendea egoitzara joaten da senideen-eta argazkiekin, baina egun hartan haiei esaten zitzaizen *Egunero*-n ez zeudela *Egunero*-koak, baizik eta *Egunkaria*-koak, baina *Egunero* egiteko, eta *Egunero*-koak *Galtzaundi*-n zeudela, baina ez *Egunero* egiteko, baizik eta *Galtzaundi*. “Nola?”, jendeak. “Entzun du- zuten bezala”. Ez zegoen beste esplikaziorik.

Ezta bromatarako girorik ere *Egunero* berriaren 1. zenbakia egitean. Kazeta egiteko gogo handia zegoen, eta pizzak ugari. Eta Coca Colak. Eta zigarroak. Eta buila batzuk ere bai. Eta inprimategiarekin negoziazio-

ak. Eta egoera zelebreak, ondorengo pasadizoak erakusten duen bezala. Hau da, 1. zenbakiaren *staff*-erako —arduradunen izenak joaten diren txokorako— *Galtzaundi*-ren eta *Tolosaldeko Egunkaria*-ren ardura- dunen sinadurak-eta behar ziren, haien ize- nean baitzioan, eta hori egiteko, *Egunero*-koak deitu egin zion *Galtzaundi*-koari: “Hi, *staff*-a egin behar dugula”. Laguna, kezka- tuta zeharo: “Estafatu?! Hori ere bai?!”.

Hitz egiteko gogo handirik ez zegoen goi- zeko ordubatak aldera. Imaginatu egoera: ordurako lau langile besterik ez egoitzan, zenbakia inprimategira bidaltzen inter- netez, egoitzako —behe batean dago— ate ondotik autoren bat pasatzen ari zela ent- zun, arnasari eutsi eta... “lasai, ez da gelditu”. Guardia Zibila noiz etorriko beldurra ze- goen lokalean.

MARTXELORI DEIA. Martxelok kartzela- tik irten zuenean hari telefonoz elkarriz- keta egiteko beldurra ez zegoen, baina ezohiko egoera gertatu zen Tolosako erre- dakzioan. Asteartea zen, otsailaren 25a, gaueko bederatziak inguru. Deia Madri- lera, *Egunero*-k han zuen kazetariari, ea Martxelo harrapatuko al zuen kartzelatik irten bezain azkar, Tolosatik pare bat gal- dera egiteko, egunkariak bederatzi eta erdiatarako Iruñean behar zuela eta. Iritsi ziren bederatzi eta laurdenak eta Martxelo kartzelatik atera zen. Baita *Egunero*-ren kazetariak azkar harrapatu ere. “Hemen daukazue Martxelo. Aizak, Martxelo, Tolosatik hotsegiten ditek. Benga”. Eta Tolosan telefonoaren ondoan dozena bat kazetari, baina inork ez nahi telefonoa har- tzerik! “Hartu baten batek!”, bota zuen

Uztartaria herri aldizkariaren jarraipen zabala





Herrian 59.000 eurotik %44 bildu da orain arte

● **Uztarría** / *Berria* sortu da, baina horrek ez du esan nahi dena eginda dagoenik. Guztira, bost milioi euro behar dira horrelako proiektu batekin segitzeko, eta kopuru horretatik 59.000 euro Azpeitian bildu behar dira. Orain dela zazpi aste hasi zen akzio kanpaina eta herrian orain arte 26.000 euro bildu dira; alegia, %44.

Jendea azkeneko asteetan ari da akzio-dun egiten. Udalari ere eskatu zaio laguntza: biztanleko euro bat. Enpresatara ere ari da joaten lagun bat. Urtea amaitu arte iraungo du kanpainak.

Herrian bada egunkari berriaren aldeko batzordea, eta ahal duena egiten ari da, batera eta bestera joz. "Ezin dugu denengana iritsi, baina guk uste nahikoa informazio zabaldu dugula", diote.

Akzioak 50 eta 300 eurokoak dira, eta herrian lau puntu daude erosteko: Uztarría, Luba, Sarea eta Urbistondo.

batek. Ezta hala ere. Bost segundo luze izan ziren. Azkenean gazteenetakoak hartu zuen.

"Martxelo, bi galdera egingo ditiat"... baina orduan Martxelo zen ezin zuena hitz egin, emozionatuta zegoen. "Bueno, aizue, Martxeloren adierazpenik gabe bidaliko dugu Iruñera, baina testua moldatu behar duenak, moldatu". Eta hala joan zen 5. *Egunero* hura. Baina ez. ETB2n *Teleberri*-n, 21:35ean, Julio Ibarra aurkezleak esan baitzuen ETBko kazetariak ondoan zuela Martxelo eta elkarrizketa egingo ziola. "Ez ba, Martxelo. Adarrik ez!", esaten zen Tolosako erredakzioan. Huskeria esanda ere sartu beharra zegoen Martxelok esandakoa, eta Iruñera deitu behar, beraz. "Aizue, atzera bota bidali duguna. Hor izango duzue berriro, hamar

minutu barru". Gero, egundoko adierazpenak egin zituen, eta merezi izan zuen aldaketak.

Handik bi egunera azaldu zen Martxelo Tolosako erredakzioa. Goizez. Eta langile gehienak falta. "Non daude?", hark, harrituta. "Andoainen, batzarrean. Goizero egiten ditek". Andoainera bidean berak ekarri zuen gogora Azpeitikoak: "Guardia Zibilaren autoan Madrilera neramatela akordatu ninduan Azpeitikoaz, Zaharretan atarian zeuden beste bi haiez eta". Hari ere esan bai baitzitzaien orduan, otsailaren 19 hartan jende arraroa zebilela Azpeitian. "Gero, Urrakin gora, atzetik izan nitian bi auto".

Berria-ren zuzendari izendatu dute orain hura, baina lau hilabete hauetan apenas

egin duen kazetari lana. Harremanetan ibili da, hitzaldiak ematen, elkarrizketak... *Egunkaria*-ko jende asko ere gauza berriak egiten egon da *Berria* sortu baino egun bat lehenago arte: kazetariak harpideak lortzen, giza baliabideetakoak herri batzordeak sortzen eta gidatzen... *Berria*-ko erredakzioko buruetakoa batek, egunkari berriaren 1. zenbakia egiten ari zirenean zioena: "*Egunkaria* itxi zutenetik, *DV* ez diat ezta irakurri ere egin". Bazen beste zereginik.

Egunkaria itxi zuten garaian erdarazko komunikabide bateko langile batek esan zuen: "Hauek balak dira!". Arma bakar, hitza dutenak. ●



udal erabakiyek

Bigarren ludoteka ireki da herrian; oraingoan Sanjuandegi auzoan

Ekainaren 10etik aurrera, herriko haur eta gaztetxoek jolasera-ko eta aisialdirako beste leku bat dute, Azpeitiko Udalak bigarren ludoteka bat ireki baitu Jose Antonio Agirre plazan, Sanjuandegi auzoan. Lehen Aitonena II.a zegoen orain ludoteka zabaldu den tokian. Aitonena lokal berrira (Salbe auzunera) pasa zen, leku handiago batera, eta haren lekuan ludoteka berria jarri da.



Ludoteka berria, Sanjuandegi auzoan.

Txus Congil

gurien...

Drogen prebentziorako teknikaria

“Azpeitiko droga kontsumoa ez da beste herrietan baino handiagoa”

Ion Aranburu / Txus Congil, Askagintzako, beste behin ere herrian izan dugu, honetan ere hitzaldi bat ematen. Uztarrria hitzaldia baino lehen egon zen berarekin.

• Ez da Azpeitira etortzen zaren lehen aldia. Zer erlazio duzu Azpeitiarekin?

Batez ere Ikasberri ikastolara etorri naiz. Bost urtetan hango irakasleekin egon naiz drogen inguruko informazioa ematen. Kilometroak egin zirenean ere laguntzen ibili nintzen eta herriko Drogen Prebentzio Mahaira ere etorri nintzen.

• Azpeitiko errealitatea ezagutzeko aukerarik izan al duzu aldi honetan?


Bai, batez ere gurasoen kezka ezagutu ditut, histerismorik gabeko kezka. Ikasleen artean hiru maila desberdinduko nituzke: lehenengoan, drogekin harremanik ez duten ikasleak daude; bigarrenengan, drogekin esperimintatzen ari direnak; eta hirugarren mailan berriz, droga bizitzaren erdigune bihurtu dutenak.

• Azpeitian droga kontsumo handia al dago?

Ez beste lekuetan baino gehiago. Baina Azpeitira kanpoko jende asko etortzen da, erdigunea delako, eta hori da kezkarria. Izan ere, astebukaeratan *konbul-tsiboki* kontsumitzen da, neurririk gabe. Asteaz zehar egoera zeharo desberdina da. Kanabis eta tabakoaren kontsumoak gora egiten du.

• Zein droga kontsumitzen dira gehien?

Gazteek astean zehar tabakoa kontsumitzen dute gehien. Beste sektore batek kanabisa tabakoa bezala erretzen du. Asteburuetan, berriz, tabakoa eta kanabisaren kontsumoa jaitsi egiten da, eta alkohola eta pilulak igo. •



uztarrria

Uztailean udal batzordeburuak aukeratuko dira

Nerea Uranga / Ekainaren 14an egin zuten legegiltzaldi berriko udal agintariak kargu hartzea. Istiluak izan ziren plazan eta udaletxean bertan. Habeakoek eurei zegozkien lau zinegotziak aldarrikatu zituzten, eta udaletxeko udal batzako lau aulki ere atera zituzten kalera. Kontuak kontu, EAJ-EA koalizioko hamasei zinegotziek eta PSE-EEko zinegotziak kargu hartu zuten — PPkoa Francisco Javier Piñeiro ez zen agertu kargu hartzera—. Alkate Julian Eizmendi izendatu zen.

Orain udaleko batzordeburuak aukeratzea falta da. Batzordeburuak aukeratzeko udal batza bat egin beharko da uztailearen 20a baino lehen, hala agintzen baitu legediak. Hala ere, dagoeneko batzordeburu batzuk, halabeharrez, beren postuari dagokion lana betetzen hasiak dira. Esaterako Mikel Ibarzabal, festetako batzordeburua, herriko Santiyo eta Saninazio jaiak gainean direla herritarrekin festen inguruko batzarrak egiten hasi da. •



Habeakoak udaletxetik aulkiak ateratzen.



Alkatea eta zinegotziak, kargu hartzearen ostean.

Gizartekintzan harrera berria

Lehen, udaletxeko gizartekintza sailera bigarren atetik sartu behar zen. Orain berriz, ate nagusitik igota, bigarren pisuan dago gizartekintza saila eta harrera lehia. Beraz, udaletxean kokalekua aldatu zaio sail honi.



Gizartekintzako harrera.

Antzerki topaketetarako aurkeztu diren kartelen erakusketa zabalik da

Udaleko Kultura Batzordeak dagoeneko Euskadiko XXI. Euskal Antzerki Topaketetako kartel lehiaketara aurkeztutako 21 kartelkin erakusketa ireki du, Betharrandarretan, lehen solairuan. Erakusketa uztailaren 12a arte irekita izango da. Erakusketaren ordutegia berriz, honakoa da: astelehenetik ostiralera 18:00-etatik 20:00etara, eta larunbat eta igandetan 12:00etatik 14:00etara. Erakusketan Ikuslegoaren Saria erabakiko da.

pertsonajie



Mikel Aranburu

Mikel Aranburu futbolaria Espainiako Futbol Ligan bigarren gelditu da, bere futbol taldearekin, Realarekin.

Aurtengo denboraldian, Mikelek ere, beste taldekideek bezalaxe, lan franko egin du taldean, emaitza politak lortuz. Realzaleen babesas jasoko

zuen ziurrenik, baita azpeitiarrena ere, batere zalantzarik gabe. Azpeitiko balkoi eta leiho asko behintzat txuri-urdin kolorez apainduta izan dira.

Mikel Aranburuk 2002-2003ko Espainiako Ligan guztira 34 partidutan jokatu du; 27 partidutan titular aritu da. Denera 2.481 minututan jokatu du eta bi gol sartu ditu. ●

zer dago gaixki, zer sobran, zer faltan?



ERANTZUTEKO EPEA: Uztailaren 15a (asteartea)

HELBIDEA: Uztarria, Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerre; edo 227 posta kutxa (Azpeitia)

AKATSA ADIERAZI (idatziz edo boligrafoz):

IZEN-ABIZENAK:

TELEFONO ZENBAKIA:

IRABAZLEARENTZAT SARIA: Gotain dendako lurrin bat opari

AURREKO ARGAZKIYE...



...ETA SOLUZIU YE




IRABAZLIE: Maitane Eizagirre



Maitane Eizagirre izan da 41. garaillea. Gemma kinkiladendak emandako oparia irabazi du. Argazkian, Maitane Eizagirre —eskuinean— eta Gemma kinkiladendako jabea ageri dira.

ekaineko hiru irudiyek




SUTEEN EGUNA. Ekainaren 13a, ostirala egun neketsua izan zen Azpeitiko suhiltzaileentzako. Goizean Goiko Kalen etxebizitza batek su hartu zuen. Arratsaldean, berriz, Arcelor (lehen Marcial Ucin) enpresako bi transformadoretatik batek hartu zuen sua. Ostirala eta 13. Ameriketako Estatu Batuetan kontu handiz ibiltzeko eguna...

Soreasu aretoak, Azpeitiko kulturgune bakarrenetakoak, atek itxi ditu oraingoz

Oihana Elduaien / Soreasu, herrian geratzen den zinema areto bakarra, itxi egin dute. Udalak eta urteetan Soreasu emateaz arduratu den familiak akordio bat lortu arte itxi da. Azken aldian jende gutxiago joaten da zinema, eta Joxin Unanue Sorea-

suko arduradunak esan digunez, "egia esan behar baldin bada, ez du konpentsatzen".

Orain hiru urte Soreasu Udalak hartu bazuen ere, Aitor Gorrotxategi Kulturako sailburu ohiak adierazi duenez, "orain arte ez dugu bertako langilee-



Soreasuko atek itxita. Aulkiak hutsik eta tolestatuta.



UROLA IKASTOLA
AZKOITIA - AZPEITIA BHI

- DBH
- BATXILERGOAK
- HEZIKETA ZIKLOAK

AZKOITIAN ALTAMIRA AUZOAN ETA AZPEITIAN PERDILLEGIN:

- **Erdi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Merkataritza
 - Arotzerien eta altzarien fabrikazio industrialia
 - Mekanika
- **Goi Mailako Heziketa Zikloak**
 - Administrazio eta finantzak
 - Zur eta altzari produktzioa
 - Mekanizazio bidezko produktzioa
 - Informatika sistemen administrazioa
- **Batxilergoak**

KALITATEA ZURE ZERBITZURA

Altamira Auzoa 2/g
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 85 21 74 Fax.: 943 85 28 67
E-mail: azkoitia@urola.org

Perdillegi, 3
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 15 37 70 Fax.: 943 816 6 20
E-mail: azpeitia@urola.org




www.urola.org



IZARRAIZPE
IZARRAIZPE ELKARTEA

AZPEITIKO IKASTOLA
KARMELO ETXEGARAI

HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA

KALITATEZKO EUSKAL HEZKUNTZA

Euskal Herria, 50
Tel.: 943 812697 - Fax.: 943 150830
E-mail: keikastola@jet.es

20730 AZPEITIA
(Gipuzkoa)



SAN JOAN FESTAK. Udako herri eta auzoetako festa andana Urrestillako San Joan jaiekin hasten da. Eta ekainean hotzik ez, baina sanjoan suaren garaia bada. Gero eta urriago dira suak gurean. Horra Urrestillan, usadioari jarraituz, errekan egiten duten sua.

Spreasi zinema aretoa

Filmeez gaindi, bilgune

- **ANTZERKIA NAGUSI ZINE ARETOAN.** Antzerkia zegoenean jende andana joaten zen Soreasura, *Kutxidazu bidea Ixabel* ikustera, kasu. Filme batzuek ere izugarritzko jendetza bildu zuten; Joxin Unanue eraikineko arduraduna ez da oso ondo ere gogoratzten, baina bat batean *Titanik* eta *E.T.* etorri zaizkio burura.
- **BETIKO KOADRILA.** Jende desberdina ibiltzen zen, baina bazen igandero-igandero hutsik egin gabe joaten zen 150 bat laguneko koadrila finkoa.
- **MILA ERABILPEN ETA BAT GEHIAGO.** Egiteko dauden gauzarik gehienak egin dira Soreasun: filmeak botatzetik hasi eta ekitaldi politikoak egiteraino. Bertan egin dira, hala nola, antzerkia, filmak, ekitaldi politikoak, bilera-batzar handiak, bertso saioak...
- **AMETS UGARI.** Aukera izanez gero, konponketa lanak egin, eta kanpoaldean terraza: udan filmeak aire librean, kontzertuak...

kin elkarlanik egin eta orain akordioa lortu nahi dugu, barne gestio arazoak eta abar konpontzeko”.

Akordioaren aldekoa da Unanue ere, eta egin beharreko konponketak egin, “herriak mezezi duen bezalako kultur gune bat osatzeko. Aukera handiak ematen ditu lokal honek, eta ezin ditugu alferrik galdu”. Hala ere, zinema aretoa itxita egongo da, gutxienez iraila arte.

Bien bitartean, herrian, sinadura bilketa bat abian jarri du zinemazale multzo batek. Soreasu baldintza egokietan irekitzeko eskatzen dute. ●

“Trena segurua da, baina zaindu egin behar da mantenua, istripurik ez gertatzeko”

Juanjo Olaizola
(Tren Museoko zuzendaria)

“Bitxia da, baina arkara garaian, urrian edo lehentxeago, ahari jokoak ikusgarriagoak izaten dira”

Imanol Lazkano
(bertsolaria)



“Pertsonalki, Mikel Aranburu oso gustukoa dut, baina Realeko jokalaria ez ditugu ukituko”

Aitor Begiristain
(Bartzelonako idazkari teknikoa)



kutxa

gizarte ekintza

Biele



domusja



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

AZPEITIA CITY



Erdi kaletik barrena plaza aldera noa denborarik galdu gabe. Ez daukat ezer berezirik egiteko, baina ohiturak erritmo jarraitu hau oparitu dit. Goiza da, erosketa usaina darie eskaparate ixkineki eta dagoeneko beroak gogor astintzen ditu bazter guztiak. Musuzapiak maiz ateratzen dira patriketatik kopetako izerdia lehortzeko intentziotan, eta itzal gu-neak Azpeitiko etxebizitzaren antzera eskuraezinak bihurtzen dira. Gauza da eguraldiak laguntzen duela, hondartzara joateko behintzat, baina jendea erruz dabil kalean gora eta behera, Zelai Luzeko berdegunean botata, iturri desberdinetan aurpegia freskatzeko, bainuak hartzeko lekuak garaiz eskuratzen edo freskagarrien lagun izan ohi diren izotz blokeekin lepo atzeak igurtzitzen. Edozein trikimailu, egiten duen bero jasanezinari aurre egiteko. Kalean herritarren aurpegiak nagusi dira momentuz, San Inazioak igaro artean behintzat, baina kanpotarrik ere antzematen da, eta ez gutxi, aurreko udako garai hauekin alderatuz gehiago; hobeto esanda, askoz gehiago; edo benetan hitz eginda, kontatzerik ere ez dago zenbat kanpotar dabilen egunotan Azpeitian.

Igerileku irekia txiki gelditu da, ura ere berotuta omen dago, hainbeste jende uretan egon izanagatik, eta zer esanik ez: aspaldian ezin izan dugu ikusi bertako belarrak duen kolorea. Hau horrela izanik, nahiz eta Urola ibaiko urak edateko moduan ez egon, igerileku parean eta Loiolako sarreran hondartza artifizialak egin behar izan dituzte, jendearen bainu egarria asetzeko. Beraz hemendik aurrera Urola ibaiko arrain nahiz ahateek konpainia berezia izango dute euren uretan. Aipatu dutenez, bi hondartza hauek presazkoak izan omen dira, baina ez omen dute kalte handirik eragingo, ura bertako hondartzetara garbi iristea omen da inportanteena, eta hori kontrolatzen saiatuko omen dira; aitzitik, bertan *zikintzen* den ura itsasora doala-eta, ez dira hain kezkatuta agertu.

Loiolari, hondartza bertako ibai ertz batean egin izanak ekarri dio aldaketarik. Bertan eraikitako lau hotelak guztiz beterik agertzen dira egun hauetan, eta jendearen etorria dela-eta bertako zelaiak kanpinez jositu daude.

Berriro kalean jartzen dut arreta eta ez dira gutxi eskuetan herriko mapa, Azpeitiko tabernetako ibilbide kulturalerako gida eta nola ez, igerileku ondoko hondartzan asteen behin ospatzen den surf txapelketako informazio orriaz ibiltzen diren turistak. Bakoitzak ikusiko du zer bisitatu edo zertaz gozatzen duen, baina aukerak eta eskaintzak ez zaizkio falta. Eskaintza haue-tako bat eta azken urtean izar bihurtu dena, aurreko

**HILEKO
GALDERA. Ba
al dakizue
uztailaren
18an zer
aurkeztuko
den? Bai!
'Literatuzta'**

udan herritik Xoxotera estreinatu zuten teleaulki horietako bat dugu; zoritxarrez diot, zeren orduan hainbat mobilizazio eta protesta izan ondoren, gehienbat bertako jendeak erabiltzen baitu, eta azkeneko Xoxoteko egunean *itzelezko* arrakasta izan omen zuen. Honek denak herriari aldaketa nabarmenak ekarri dizkio, bai diru aldetik, bai...beno agian aldaketak hain onerako ez dira izan. Baina hori bai, azkenean autobidearen proiektua bertan behera utzi dute agintari gorenak. Orain Azpeititik ia inork ez du igaro behar izaten, bertan gelditzea erabakitzen dute eta honek sortu duen arazotxoari laster eman diote irtenbidea. Azkoitia, Beasain, Errezil edo Zestoa aldetik datozen bisitarientzat aparkalekuak egin dituzte euren sarreretan, eta gainera doan. Ondoren, aparkaleku haue-tatik uneoro autobusak jarri dituzte. Ia, ia Kilometro-tan bezala.

Azken finean, Azpeitia beti izan da kanpotarrentzat itsasorik gabeko kostako herri bat, eta hondartzak itxi dituzten horrekin orain Azpeitia itsasorik gabeko kostako herri bisitatu bat bihurtu da; edo hobeto esanda, bihurtzeko arriskuan egon daiteke. Eta hau gutxi baltiz herri sarreretan honako kartelak jartzeko asmoa omen da. "Tenporek esana, Bero handia eta hondartzak itxita, beraz.....".



Uztarrria

Uztarriak, aldizkariaren alde, Frantziako Tourraren inguruan hirugarren porra antolatu du



Uztarriaren datuak

Argitaratzailea: Uztarrria Kultur Koordinadora
Egoitza: Julian Elorza Hiribidea 4, 1.a ezkerria (Azpeitia).
 Telefonoa eta faxa: 943 - 15 03 58
Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com

Web orria:
www.uztarria.com

Posta kutxa: 227, Azpeitia
Inprimategia: Gertu
Tirada: 1.900 ale
Lege gordailua: SS-860/2000

aldizkari honen laguntzaileak



AZPEITIKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA Kultura Saila

Uztarrria Kultur Koordinadorak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizuna

- **ZER DA?** Uztarrria herri aldizkariaren aldeko hirugarren porra da.
- **PARTE HARTZEKO:** Edonork har dezake parte, eta nahi adina talde osatu. Apustu bakoitzean bederatzi txirrindulari aukeratu beharko dira —ordenean—, bi ordeko eta talde bat.
- **APUSTUA:** Apustu bakoitzeko —hau da, talde bakoitzeko—, hamabost euro jokatuko dira.
- **NON?** Apustuak Uztarriako lokalean bertan, Amaia, Erreka, Etxe Zuri eta Korrale tabernetan egin daitezke.

- **IZEN-EMATEA:** Uztailaren 6an, igandean, 14:00etan bukatuko da izena emateko epea, nahiz eta 2003ko Frantziako Tourra bezperan hasi.
- **SARIAK:** Lehen saria, bildutakoaren %40; bigarren saria, bildutakoaren %20; eta hirugarrena, bildutakoaren %10. Bildutakoaren %30 Uztarriarentzat izango da. Eta sariak saninazioetan banatuko dira, Uztarriaren txosnan.
- **SAILKAPENAK:** Porrako sailkapena www.uztarria.com/pourra helbidean ikusgai izango da.

albiste txikiyek

'Literatuzta' aurkezpena hilaren 18an

Uztarrria Kultur Koordinadorak ekimen berri bat jarrita du abian, idazle gazteen eta literatur sortzaile berrien txoko izango dena. Horren emaitza literatur aldizkari bat izango da: *Literatuzta*. Aurkezpena uztailaren 18an izango da, ostiralean, 22:00etan Enparan dorretxearen atzeko belardian. Aurkezpen ekitaldian aldizkarian agertuko diren zenbait idatzi irakurriko dira.

II. Kulturaldia amaitu da

Uztarrria Kultur Koordinadoraren II. Kulturaldiaren azken ekitaldia izan zen herrian ekainaren 21ean, artisau azoka. Koordinadorako Zaharra Berri Elkarteak hartu zuen bere gain azokaren antolaketa. Bero izugarria egin bazuen ere, apurka jende andana hurbildu zen. Erakusketak postuak eta tailerrak izan ziren. Etaaurten herriko artisauak presentzia handiagoa izan dute.

666 bazkide gara jada

EGIN ZAITEZ BAZKIDE UZTARRIAN

Urtean 21 euro (aldizkaria, bi liburu, 'Literatuzta') / Bestela egin harpidedun (aldizkaria soilik; kontuarena ez beste gutzia bete)

IZEN-ABIZENAK: _____

HELBIDEA: _____

HERRIA: _____

KODE POSTALA: _____

TELEFONOA(K): _____

POSTA ELEKTRONIKOA: _____

KONTU KORRONTEKO ZENBAKIA (20 digitoak): _____


Julian Elorza Hiribidea, 4, 1.a ezkerria • 227 posta kutxa • Telefonoa eta faxa: 15 03 58 • Posta elektronikoa: uztarrria@topagunea.com

Nagore Aranburu

aktorea

Donostian bizi da azpeitiar hau, eta ezaguna da Euskal Herri osoan. Antzerkian hasi zen, eta telebistara jauzia eman zuen gero. Aktoreen munduko lan gehienak ezagutu ditu

“Norberak
egin behar
ditu
gauzak,
zain egon
gabe”



Donostian egin genuen hitzordua Nagore Aranbururekin, Saguesen. Taberna batean genuen zita, baina eguraldi apartari uko egin ezinik hondartzan fuel artean eguzkia hartzen ari zen jendeari begira egin genuen elkarrizketa, petril gainean. Lo-kuluxka ordua zen, eta bazen nahiko lan eguzkiaren indarrari begi irekiekin erantzuten.

● **Jokularisarietak jokorik ematen al dute?**

Ez du ezer berezirik ekartzen. Egun batean saria jasotzen duzu, eta gero etxean jartzen duzu, hortxe, liburuen ondoan. Ez du besterik. Urtebetetze eguna dela dirudi, baina handikiro ospatuta. Jende pila bat etortzen zaizu zoriontzera, bi muxu ematera... hori ederra da, polita. Guk jendeari gustatzeko egiten dugu lan, eta jende horrek horrelako sari bat ematen dizunean gustatu egiten zaiolako da. Hori oso polita da.

● **Bigarrena duzu dagoeneko...**

Bai. *Jokulari* sarietak polita dutena aktoreek beraiek ematen dutela da. Zurekin lanean dabilen jendeak saria ematea, ondo dago. Haiek dakite ondoen zenbat kostatzen den gauzak egitea eta lanak eskatzen duen ahalegina. Kritiko gogorrenak ere haiek dira, bai baitakite nola egin behar den lana. Beste aktoreek saria ematea oso polita da.

● **Herritik ezezagun bezala joan zinen, eta orain ezagutzen ez zaituenik ez da.**

Izenagatik ezaguna naiz, baina gauza zelebre bat gertatu zitzaigun nire anaia eta bioi. Lehen, Azpeitian bizi nintzenean, "han, Nagoreren anaia", esaten zioten nire anaia-ri, eta orain, berriz, ni naiz haren arreba; "han, Ioneren arreba", esaten didate. Nire izena ezagutzen dute, baina hortik aurrera...

● **Derrigorra al da Azpeititik irtetea antzerkian aurrera egiteko?**

Egiten den lekura joan behar da, eta hiriburuetan egiten da antzerkia. Ni ikastaro bat egitera etorri nintzen; Euskal Herrian oso gutxi daude, eta Donostira etorri behar izan nuen. Madrilen-eta asko daude, baina hemen, herrietan apenas dagoen. Azpeitian

antzerki amateurra egiteko aukera izan nuen, eta egin nuen. Gero, pauso txiki bat aurrera ematea erabaki nuenean mugitu beharra izan nuen. Mugitzen ez bazara ezin dituzu gauza berriak frogatu edo jendeak lana nola egiten duen ikusi.

● **Lehen pausoak Antxieta taldean eman zenuen eta hura ere desegin egin da.**

Bai, eta pena da. Pena ematen dit, kultur elkarte bat desegiten denean bezala. Elkarte horiek izugarritzko aukera ematen dute egiten den lana jendeak ezagutzeko, eta edozeinek antzerkia edo dena delakoa frogatzeko. Publikoa, egiten dena ezagutzera ematea eta jendeak ondo pasatzea falta zaio antzerkiari, eta horretarako asko laguntzen dute talde amateurrek. Ez duzu maila bat eman behar, eta hori guztia oso aberasgarria da edozein herritako kulturarentzako.

● **Azpeitian lehen zailtasunak baziren, Antxieta desagerpenarekin ez al da oraindik eta nekezago izango?**

Talde amateurretan beti egon behar du dena aurrera eraman behar duen jendea. Jende horrek lan asko eta ahalegin handia egin behar izaten du. Gainera, askotan ez dute ezer jasotzen esfortzu horren truke, ez dirurik, ezta esker onik ere. Antzerki amateurreko jendeak denbora libreko gauza bat bezala izaten du antzerkia normalean, eta horrek zera esan nahi du: aparteko lana ere egin behar dutela eguneroko ogia etxeratzeko. Beste ardurak pilo bat izaten dituzte. Afizio handia duten taldeek denbora asko irauten dute, baina hortik aurrera jendea nekatu egiten da, eta erreleboa behar da. Erreleborik ez dagoenean, ezin zaio lan pila hori egin duen jendeari gehiago eskatu, nahikoa egin dute. Hala ere, nik uste dut talde horiek naturalki sortzen direla. Antxieta utzi egin du, baina Azpeitian gauzak frogatu nahi dituen jenderik baldin badago, bai antzerkia, bai literatura... sortuko da besteren bat ere. Gainera, hor dago Lakrikun taldea ere.

● **Antzoki moduan zine areto bat dugu.**

Azpeitian eta beste herri pila batean antzokiak behar dira. Orain izugarritzko pausoak eman dira, eta frontoietan-eta gutxi egiten da... baina antzerki bat ikusteko antzo- ▶▶

» ki bat behar da. Jendeari ezin zaio inoiz kulparik bota. Ezin da esan publikoa "ez da etortzen!", edo 'publikoari ez zaio gustatzen'. Jendea gustura egoteko azpiegiturak behar dira, eta hori martxan jartzeko antzoki bat behar da. Baina ez antzerkia egiteko soilik, beste mila gauza egiteko ere bai: poesia emanaldiak... Eta gero, jendeari joateko aukerak eman behar zaizkio.

● **Leku guztietatik ihesi zabilta: Azpeititik Donostiara, handik Hendaiara joateko asmoa duzu... Ez zara ba famaren ihesi ibiliko?**

Bai zera! Azpeititik hona lan bila etorri nintzen, eta Hendaiara etxe bila noa. Famarekin zerikusi gutxi...

● **Famak ez dizu buruko min handirik sortzen, beraz.**

Ezagutu egiten naute, batik bat telebistan agertzen hasi nintzenetik. Lehen ez ninduen inork ezagutzen, lehen Nagore nintzen. Beno, eta orain ere bai! Baina telebistan agertzen hasi nintzenetik gehiago ezagutzen naute. Izan ere, telebistan nahi ez duenak ere ikusi egiten du zure aurpegia *zapping* une batean edo bestean. Gehiago ezagutzen naute, baina ez dut inoiz arazorik izan fama kontu horrekin. Inoiz ez zait gertatu taberna batera sartu eta "han, Nagore!" edo antzekorik. Inoiz ez... ez dakit jartzan dudan aurpegiatik edo zergatik den, baina inoiz ez zait horrelakorik gertatu.

● **Modu askotako lanak egin dituzu (haurrentzat, helduentzat, telebistan, antzerkian, aktore lanak, gidoi lanak, moldaketak...). Zer gustatzen zaizu gehien?**

Uff! Ez dakit... Orain egiten ari naizena asko gustatzen zait. Niri beti gustatu izan zait idaztea, eta hori beti afizio bezala izan dut. Antzeztea ere asko gustatzen zait. Lanaren arabera da! Antzeztea gustatzen zait, eta zer antzezten dudan, gusturago egiten dut, edo nekezago. Idazten dudanean ere enkarguz egiten dut asko, eta lan polita bada edo zeuk nahi duzuna egiten baduzu oso gustura egiten da, baina bestela... Lanaren arabera da. Niri gehien gustatzen zaidana gauza berriak frogatzea da, eta badut hori egiteko aukera. Ez da erraza gehien zer gustatzen zaidan esatea.

● **Eta gutxien?**

Gustatzen ez zaidan zerbait egin behar dudanean pasatzen dut okerren. Edo kontrolatzen ez dudan zerbait egin behar dudanean. Egiten ari naizena hobeto egin daitekeela badakidanean.

● **Adibidez?**

Niri telebistan gertatzen zait hori, *Sorginen Laratza*-n. Batzuetan jakiten dut egiten ari naizena ez naizela ondo egiten ari. Baliteke jendearentzat ederki egotea, baina zuk badakizu hobeto egin zenezakeela, ahots bategi ez dizulako irteten, edo egiten ari zare-

“Gauzak egiten diren lekura joan behar da zerbait egiteko, eta Euskal Herrian hiriburuetan baino ez dira egiten gauzak”



“Jendeak antzerkia edo antzekoak egiteko gogo baldin badauka, sortuko dira Antzietaren antzeko taldeak ere”



“Euskal herrian derrigorra da antzerki eskola bat, jendeak gutxienez nahi duena ikasteko aukera izan dezan”



na beste modu batera hobeto egin dezakezula badakizunean..., baina ez daukazu denborarik, eta, gainera, horrelaxe planteatuta dago; beraz, horrelaxe egin behar duzu.

● **Zertan ari zara orain?**

Alde batetik telebistan ari naiz, *Sorginen Laratza*-n. Horretaz gain, talde batek enkargatutako antzerki bat egiten ari naiz beste bi lagunekin batera.

● **Eta zer moduz doa?**

Ondo. Telebista enpresa handi bat bezala da. Antzerkian lana egitea etxeko negozio batean lana egitea bezala da, aitaren tabernan lana egitea bezala; gehiago haserretzen zara, baina lanaren parte handiago izaten duzu. Telebista, berriz, enpresa handi bat denez, joaten zara, eta gauza bat egin behar duzu, lan hori egiten duzu, handik atera eta kitted! Inguruan gustuko jendea bilatzen baduzu, zoragarri. Eta niri hori gertatu zait telebistan; lagun handiak egin ditut, entseguetako jendearekin-eta oso harreman ona dut.

● **Antzerki eskolak ere eman izan dituzu. Nork ikasi du gehiago: ikasleek edo zuk zeuk?**

Ikasleek entzuten badute... Nik asko ikasi dut. Lehenengo ikasi nuena eskolak ematea izan zen. Nik ez dut magisteritza ikasi, eta antzerkiko teknika ere ez dut inoiz ikasi. Nik zapatar zaharrek bezala ikasi dut: egin eta egin. Zurriolan eman nituen eskolak, ume askorekin. Zoragarria izan zen. Zuk esaten dituzun gauzak balio dutela ikustea... Balio duen teknika bat jendeari nola erakutsi ez dakizunean, ez zara ohartzen ondo edo gaizki ari zaren, baina balio duela ikusten duzunean mundiala da.

● **Nondik sortu zitzaizun antzerkirako zaleatasuna?**


Azpeitiko Antxieta taldeari esker. Gure aita talde horretan ibiltzen zen, eta txiki-txikitik hara joaten nintzen, jolas bat bezala. Iluntzeetan aitaren entseguetara joaten nintzen etxean egon beharrean. Bederatzi urte inguru nituenetik Antxieta inguruan ibili nintzen. Niretzat denbora-pasa zen. Hara joan eta zer eta nola egiten zuten ikusi eta... Gero muturra sartzen joan nintzen pixkanaka-pixkanaka, eta gustatu!

● **Aktore jaio ala egin?**

Nik uste dut gauza denak bezala ikasi egiten dela. Jaio edozein gauza egin gaitzke, baina gero inguruak, ikusten duzunak, egiten duzunak... horrek zeresan handia du. Dena, egin egiten da, nire ustez.

● **Antzerkian hasteko adinik ba al da?**

Batere ez. Bai zera! Hori bizitzan bezala da. Antzerki profesionalean beti egongo dira paperak ume batentzat edo amona batenetzat. Gogoia eta indarra izanez gero, aurre-ra! Eta amateurra egiteko zer esanik ez!



di-da batien

- **Antzokia edo telebistako platoa?** Antzokia.
- **Aktore bat?** Ramon Barrea.
- **Antzezlan bat?** Ezinezkoa zait bakar bat aukeratzea.
- **Antzoki bat?** Mariña. Donostiakoa.
- **Txaloak norentzako?** *Berrria* egunkariarentzako.
- **Tomateak?** Ez dakit ba...
- **Azpeitiar bat?** Gure amama.
- **Liburu bat?** *Seda*.
- **Kantu bat?** Uf! Asko, ezin dut bakar bat aukeratu.
- **Bizitzeko leku bat?** Hendaia ez dut progatu; oraingoz, Donostia.
- **Amets bat?** Nagoen lekuan jarraitzea.
- **Damu bat?** Oraindik ez daukat potolorik.
- **Edari bat?** Garagardoa.
- **Janari bat?** Gazta daraman edozer gauza.

● **Badirudi antzerki profesionala egitea miraria dela, eta zer esanik ez euskaraz egin nahi baduzu...**

Hemen zaila da eskolarik ez dagoelako, eta hau txikia delako. Hemen ezin gara bost mila aktore izan. Ez dago denentzako lanik, ezta publikorik ere. Baina helburua antzerkia, telebista edo dena delakoa egitea baldin bada, ikasi egin behar da. Baina ezinbestekoa da gero bakoitza bere gauzak egiten hastea. Taldeetatik hots egitea oso arraroa da, ez baitago leku handirik. Gogoa izanez gero, antzerki taldeak sortu egin be-

har dira, eta gauzak egin, denok dugu zer-bait besteei erakusteko.

● **Zer moduz ikusten duzu euskal antzerkia?**

Ni hasi nintzenean eta orain, nahiko antzera dagoela iruditzen zait. Gauzak egiten dira, eta kanpora ateraz gero ere gustatu egiten da normalean, batzuk gehiago eta besteak gutxiago, baina gustatu gustatzen da. Hemen teilatutik hasten gara, ordea, etxea egiten, eta emaitzak ikusi nahi ditugu. Egiten den obra kopuruaren eta publikoaren arabera baloratzen da euskal antzerkia. Niretzako, beheko lana falta da, eskolatan an-

tzerkia ematea, talde amateurrak egotea... Hor sortzen da giroa eta hor sortzen da publikoa. Gauza guztiak jendeari interesatzen zaizkion bitartean bizitzen dira, eta interes hori piztu egin behar da.

● **Antzerki eskola bat ezinbestekoa da, berraz.**

Beharrezkoa ez, derrigorra. Jendeak antzezten ikasi egin nahi badu aukera izan behar du. Euskal Herrian ez beste toki denentan dago, okerrago edo hobeto, baina badago. Euskal Herrian, berriz, bat bera ere ez. ●

Tabernetako uretan

Baktorearen bigarren oinarria: isilik egon eta begiratzea, bizitzaren taupada daramaten gauza horiek jasotzea, bereganatzea, gero bere erara eman eta agertuko dituenak. Azpeitian garai hartan kultur ekimen ugari egiten ziren, eta Kontxuk, gaztea artean, zain jarraitzen zuten, zehar haiek hots egin arte zain egon behar zenuen, Peatonda abesbatzan kantatutakoa baita, Gipuzkoa mailan asko ibili ginen.

Baina zain egoten zen ume hura hazten zihoan, eta gero eta maiteago zituen antzerkiaren trikimailu guztiak. Kontua zerbait egitea zen, entretenitzea, bizitzari pizgarria aurkitzea. Eta publikoaren aurreko aktuaizoen zain geratu gabe, antzerkia laguntzeko jolas algaragile bilakatu zen. Eszenarioak ez dit beldurrik eman inoiz. Ateratzerakoan izan ohi den tentsio hori txikitatik bizi izan dut nik, niretzat ez da gauza arraroa eszenariora irtetzea. Neguan, etxean, eskaileretan egiten genuen antzerkia, kantatu egiten genuen, dantza, disfrazatu egiten ginen. Koadrilan ere beti esaten zidaten, hi haizan, imitatu zan Don



12



KEPA
URBIETA
1981. Agostail

Lorentzo, edo Nartxixa katekistie, bale, egingoia ba, eta denak barrez edukitzen nituen. Gero zezen korrida antolatzen zuten, neskek manola bezala joaten ziren, mutilak torero moduan, eta beste batzuk zezenarena eginez.

Hala ere, bada Kontxuren pasadizo bat elkarrizketa batean irakurri diodana. Kaleko espaloietan aurkitzen zituen paper guztiak jaso eta irakurtzeko ohitura zuen. Han aritzen zen marka registrada, ingredientes eta horrelakoak letzen. Igande goiz batean amak ogi bila bidali du. Kanean zihoala hor aurkitzen du karamelo paper bat lurrean. Hasi da hura irakurtzen, eta, bukatu duenean, despistatuta, karamelo papera bota beharrean dirua bota lurrera. Hor itzuli da etxera, ez ogi eta ez diru, karamelo paper zimurra besterik ez duela eskuetan. Etxekoek ez zitoten ezer sinesten, nola bada? Ez dakit antzerkiak baliatu zen une hartan bere ama lasaitzeko, baina zerbait beharko zuen.

Horra aktorearen hirugarren oinarria: bere begien aurrean daukan munduarekin ez konformatzea, egu neroko bizitzak agertzen dion egoera nolabait edertu eta aberastu nahi izana, aurkitzen dituen edota esku ra uzten dizkieten tresnak erabiliz. Kontxure.

Hagunarteko jolas algaragile bilakatu zen. Eszenarioak ez dit beldurrik eman inoiz. Ateratzerakoan izan ohi den tentsio hori txikitatik bizi izan dut nik, niretzat ez da gauza arraroa eszenariora irtetzea. Neguan, etxean, eskaileretan egiten genuen antzerkia, kantatu egiten genuen, dantza, disfrazatu egiten ginen. Koadrilan ere beti esaten zidaten, hi haizan, imitatu zan Don Lorentzo, edo Nartxixa katekistie, bale, egingoia ba, eta denak barrez edukitzen nituen. Gero zezen korrida antola

13

LITERATURAREN UZTA

Uztailaren bukaeran agitaratuko du Uztarriak 'Literatuzta' liburuxkaren lehendabiziko zenbakia, azpeitiarren idatziekin

Iban Arregi

Azpeitian literatura euskaraz idazten da. Ezin bestelakorik esan. 30 lan inguru bilduko ditu *Literatuzta* liburuxkaren lehengo zenbakiak. Ipuinak, poesia, bidaia-kronikak, bertsoak... Denak bertako jendeak euskaraz idatziak.

Herriko gazte batzuen ekimenari erantzunez (Igor Astigarra, Aitor Bengoetxea, Manex Beristain, Kepa Urbieta, Arantxa Aldalur eta beste zenbait), Uztarriak uztailaren bukaerako alearekin batera zabalduko du *Literatuzta* liburuxka. 36 orrialde inguru izango ditu, testu ugari eta zenbait ilustrazio, eta hogeiren bat egile. Hurrengoetan beste egile batzuek aile-gatzea da helburua, eta dagoe-

neko horretarako bidean ari dira *Literatuzta*-ren bultzatzaileak.

Literatuzta-ren helburu nagusia, herrian sortzen den euskarazko literatur uztaren leihoa izatea da. Literatura genero ezberdinei eta idaztera animatzen direnei lekua egin nahi zaie. "Era berean, herrian irakurtzaletasuna bultzatzeko ekimen ezin hobea iritzi diogu proiektu honi", diote bultzatzaileek.

Somatzen da azken boladan literaturaren ekarria gure herrian. Idazle ezagunak ez ezik (Aitor Arana, Pako Aristi, Fernando Mórillo, Jose Luis Otamendi...), beste ez hain ezagun batzuk ere ari dira idazten eta idazten dutena kanpora atertzen. Hor dago, esaterako, herriko hiru gazte duela urtebete egin zuten *Diapoesia* emanaldia, Uztarriak iaz antolatutako

Ezaugarriak

- **EKOIZPENA.** Urtean bi zenbaki eta sei hilabeteko tartearrekin.
- **ORRIALDEAK.** Zenbaki bakoitzak 32-36 orrialde.
- **DISEINUA.** Kolore batekoa izango da, eta lanak ilustrazioekin hornituko dira. Irakurterraza, erakargarria eta apaina.
- **EREMU GEOGRAFIKOA.** Azpeitira mugatuko da.
- **ALE BAKOITZEAN.** Ipuinak, bertsoak, olerkiak, bidaia-narratioak...
- **BANAKETA SISTEMA.** Uztarriako bazkideek doan jasoko dute, eta besteentzat liburudenda eta kioskoetan salgai izango da.

Kulturaldian estreinatu eta hainbat herritara zabalduta dena; edo aurrean Kulturaldian eskaini den *Menu erotikoa* emanaldia.

Eta bide horretan kokatu behar da *Literatuzta* ere. "Idazten dutena kanpora ateratzeko zailtasunak izaten ditu jendeak. Herritarrei horretarako aukera eman nahi diogu". Eta bide horretan kokatu behar da uztailaren 18an egingo den emanaldia ere: Enparan Dorretxearen atzealdean, zelaian, *Literatuzta* aurkeztuko da, errezitaldi-emanaldi batean, 22:00ak aldera.

Azpeitian literatura euskaraz idazten da, bai, eta horren leihoa izan nahi du *Literatuzta*-k. Beraz, irakurle: poesia, narratiba edo dena delakoa idatzi baduzu, eta zure uztak kanpora atera, hortxe duzu *Literatuzta*: literatuzta@uztarria.com. ●

AMERIKARA NOA...

Legen Beltza herriko taldeak lau diskotarako kontratua sinatu du AEBetako disketxe batekin; lehen diskoa uztailean aterako da

Nerea Uranga

Urrestillako musika lokaletan sortutako taldea da Legen Beltza; gaur egun Zubi Zaharren du entseguetarako lokala. Eta han baieztatu diote Uztarriari albistea: Ameriketako Estatu Batuetako (EAB) disketxe batekin lau disko grabatzeko kontratua sinatu dute. Lau dira Legen Beltzan: Xanti Rodriguez (baxua eta ahotsa), Edorta Azkune (bateria, Ekaitz Garmendia (gitarra) eta Joseba Azkue (gitarra) —argazkian, laurak, hurrenez hurren, ezkerretik hasita—.

Mingainean galdera: Nolatan heltzen da Zubi Zaharren entseatzen duen talde bat, Euskal Herriko gaztetxe eta plazetan jotzen duena, AEBetako disketxe batekin harremanetan jarri eta kontratu bat sinatzera?

Erantzuna ere bat batekoa. "Euskal Herriko disketxeen babesik ez dugulako izan. Kanpoko disketxeetara zuzendu aurretik

hemengo disketxe-etara jo genuen eta babesik ez dugu izan. Orduan, 40-50 bat maketa grabatu, pare bat kanturekin, eta kanpoko disketxeetara bidali genuen. Askok erantzun ziguten eta AEBetako Crash Music disketxeak lau disko grabatzeko eskaintza egin zigun".

INGELESEZ. Kontratuak kantuen hizkuntzan eragin die batik bat, bestelako baldintza zurrunik ez dute izan. Lehen, kantu guztiak euskaraz egiten zituzten; orain, ingelesez eta euskaraz. Diskoan, euren gogoz, kantu bat euskaraz sartzeko aukera izan dute. "Hurrengo diskoetan ere euskaraz gai bat edo beste sartzea gustatuko litzaiquke, gure hizkuntza euskara baita", diote.

Kontratu berriak ilusioa sortu du taldekoen artean. "Izugarrizko jausia da. Probatzeagatik egin genuen eta ezustean harrapatu



• **EGILEA:** Legen Beltza • **ARGITALETXEA:** Crash Music • **IZENBURUA:** 'Insanity' • **ESTILOA:** Trash • **ALE KOPURUA:** 10.000 • **ARGITALPEN EGUNA:** Uztailearen 22a • **DISKOAREN AURRERAPENA:** www.legenbeltza.com.

gaitu. Jakiteak diskoa mundu osora zabalduko dela motibatu egiten gaitu". Legen Beltza taldearen kontratuak sona handia izan du. "Espai-

niako metal aldizkarietan eta taldearen berri eman da. Morboa sortu da. Orain arte nahiko kritika onak egin dizkigute. Baina saldu egin garela eta horrelakoak ere entzun behar izan ditugu foro desberdinetan. Kontu bat behintzat garbi dugu: lehen baino okerrago ez gara egongo".

Kontratu berriaren lehendabiziko emaitza uztailearen 22an aterako da: *Insanity* diskoa. Donostiako disko dendaren batean aurkeztuko dute. Eta ea Euskal Herriatik kanpo ere jotzen hasten diren, orain arte hemen baino ez dutelako aktuatu. Hori da haien nahieta-ko bat. ●



datue

22.367

lagunek bisitatu dute tren museoa apirilean eta maiatzean.

dato historikue

172

pertsona zendu ziren 1918an herrian izandako gripe izurritean. Zazpi mila biztanle inguru zituen Azpeitiak.

esaldiye

“ Bertakook egin beharko dugu dena, ez baita inor etorriko euskaraz teknologiak garatzera ”

Josu Waliño
(Eleka programaren arduraduna)

esaerie

“ Zopa otza eta ardo beroa txarrak ”

liburutik ttak

“ Begietatik benda kentzeko garaia heldu da. Horrenbestera inoko buruhaustek ematen ari zaizkigun kanpaiak benetan isil daitezen bi konponbide posible baino ez ditut ikusten: kainoi kolpeka aidean eraistea eliz-dorrea —horren erraza ez dena, herriko beste zati batek laguntzat baitauka— edo behin eta betiko sakristauarekin hitz egitea erabaki, bere etxean gordetzen ditu-eta kanpandorreko giltzak ”.

‘Aturritik Ebrora. Telesforo Monzon. Hitzeko gizona’. Artikuluak (1981ekoa da goikoa). Anai Artea argitaletxea.

kontue da... Imanol Elias Odriozola (idazlea)



**EHUN URTE
AURRETIK**

Azpeitiko zezen-plazaren lehen mendeurrena dela-eta zenbait ospakizun antolatu dira; horrela merezita. Ez da erabili zezen jaialdiatarako bakarrik, euskal kirolak ere sekulako eskenatokia aurkitu du bertan. Gertaerari buruz idatzita dugu beste toki batean ere, baina ehun urte aurretik, 1803an, Azpeitian gertatutakoaren berri jaso nahi genuke.

Ez zen ohikoa lau hilabete aurretik herriko jaietarako agintarien artean hitz egitea, baina 1803ko martxoaren 8ko bileran Inazio Ramon Arozenak zezenketak antolatzeko bi proposamen aurkeztu zituen. Bata, uztailearen 31rako, erabili gabeko bi zezen eta, Nafarroatik ekarriko bazituen ere, inguruan aurki zitezkeen beste lau eskaini zituen. Ondorengo bi egunetarako, berriz, erabili gabeko beste sei zezen, Ejea herrian edo inguruan kontratatuta. Herri-

ak ordaindu beharko zuen enparantza nagusia gauzez argitzea eta itxitura egokitzeko egurra bere basoetatik eman beharko zuen. Bigarrenengo proposamenean, 1.500 errealekin truke antzeko jaialdia eskaini zuen, plaza argitzea bere kontu zela. Agintarietara, lehenengoa aukeratu zuten martxoaren 13ko batzarrean.

Baina, itxitura egiteko erabiltzen zen material gehiena frantziarrak erre egin zuten eta 400 edo 500 haritz ebakitzeko baimena eskatu zioten agintarietara Kontseilu Nagusiari, apirilaren 13an hartutako erabakiaren ondoren eta zertarako behar zituen jakinaraziz. Ebakitzeko zuten zuhaitz bakoitzeko beste hiru landatzea eskatu zuten Kontseiluak, eta onartu egin zen.

Donostiako Udalera zuzendu zuten gero Azpeitiko agintarietara, jaietarako Bixente Ibarguren txistularia herriratzea eskatuz, eta zailtasun

garai bateko Azpeitiye ...Rosario Urbietak kontatua

Apretak jantzi eta festara

Gazteak gero eta gehiago mugitzen dira festetara, baina ez uste etxeko helduenak ere festa garaian mugitzen ez zirenik

Ion Aranburu

Uda ere iritsi da eta udarekin batera Euskal Herriko hainbat lekutako festak. Gazteak gero eta gehiago joaten dira festetara, baina ez pentsa egun gertatzen den kontua bakarrik denik, etxeko helduenak gazteak zirenean ere joaten ziren-eta inguruko herrietako festetara. Hala dio behintzat, Rosario Urbietak: “Ni izatez Arrukoa naiz, baina Azpeitian 41 urte daramatzat bizitzen, ezkondu nintzenetik. Nire gazte denboran ere joaten ginen inguruko herrietako festetara. Zumaira eta gertuko herrietara joaten ginen”.

Gaur egun edozein bazterretako jaietara joateko autoz mugitzen da, baina orduan ez zen horrela izaten. “Orduan oso auto gutxi zegoen, eta edozein bazterretara mugitu nahi bagenuen, oinez joan behar izaten genuen. Apretak jantzi eta hala joan ohi ginen. Treneta hartzeko dirua behar izaten zen eta guk ez

genuen izaten”. Bazkalostean ateratzen omen ziren festara joateko, arratsalde-pasa. Izan ere, gaur egun baino lehenago bueltatu behar izaten zuten. “Afal ordurako etxean egon behar izaten genuen, zortziak alderako. Noiz edo noiz aitak utzi izan zigun beranduago bueltatzen, baina gehienez ere bederatziak alderako etxean, elizako kanpaiak amaitzerako”. Etxera iritsitakoan, berriz, errosarioa errezatu, afaldu eta ohera. “Orduan egunez mugitzen ginen, ilundu baino lehen etxean izateko. Eguna argitutakoan jaikitzen ginen, nahiko lo eginda. Izan ere, gaur egun baino askoz goizago izaten zen orduan oheratzeko ordua, eta ez genuen lo faltarik izaten”.

DANTZAN. Orain tabernaz taberna ibiltzeko ohitura handia dagoen bezala, orduan dantzan egiten zen, dantza sueltoan. “Orduan *agarraua* egitea bekatu zen eta dantza sueltoa egiten genuen”.



Zezen plaza egin aurretik Azpeitiko plazan antolatzen zen itxitura batekin zezen plaza. / IMANOL ELIAS

● **ITXITURA ERRETA.** Frantziarrak Azpeitian izan zirenean zezen-plazako itxitura egiteko ia material guztia erre zuten

guztiak gainetik ospatu ziren zezenketak. Ezin da jakin, ordea, zein izan ziren toreatzaileak, berdin zezen edo zekorrei dagokionez ere.

Gaur egungo zezen-plaza balute, enpresari lanak hartzen zituzten herritar haiek zer ez zuten antolatuko egun batzuetarako bada ere!

abizena


ARRIZABALAGA

● **Banaketa semantikoa.**

- Arri-: arria.
- -Zabalaga: zabala.

● **Esanahia.** Arri zabalak dauden tokia.

● **Armarria.** Armarriaren atze alde a gorria da. Horren gainean, urrezko bi herbila daude. Abizen horrekin *Arizabalaga* abizenaren armarría ere edukitzen dute.



● **Abizenaren kokapena.**

- Azpeitia.
- Azkoitia.
- Ataun.
- Segura.
